



# BALIOEN KULTURA


## Gipuzkoarentzat

Kultura, Turismoa, Gazteria, Kirola eta Lankidetzat

2015, iraila



Gipuzkoako Foru Aldundia



## BALIOEN KULTURA GIPUZKOARENTZAT

**Kultura** dago gure gizartea egituratzen duen **balio sistemaren** oinarrian.

Kultura, Turismo, Gazteria, Kirol eta Lankidetza Departamentuaren kudeaketak xedetzat izango du **balioen kudeaketa**, Gipuzkoak aurrera egin dezan nabarmen hiru arlo hauetan:

- Elkarbizitza demokratikoa
- Herritarren ongizatea
- Irudia eta kanporanzko proiektzioa

Departamentua eraldaketa sozialaren eragile izango da, horretarako balioen transmisioa eta aberastasunaren eta talentuaren sorkuntza baliatuz:

- **Kultura:** Kultura herritar guztiengana gerturatuz eta industria kulturalak sustatuz, aberastasun eta enplegu iturri gisa.
- **Turismoa:** Hazkunde eredu jasangarri bat sustatuz: eredu horrek uztartu egingo ditu, batetik, gure kulturaren babesa, jarduna eta gure ingurunea, eta, bestetik, aberastasunaren sorkuntza.
- **Kirola:** Gizarte plural honetan, kohesiorako, superaziorako eta elkarbizitzarako tresna gisa.
- **Gazteria:** Gazteen presentzia soziala eta garapen pertsonal nahiz kolektiborako aukerak indartzea, lurraldearen etorkizuna bermatzeko.
- **Lankidetza:** Solidaritatea kaltetuenak laguntzeko eta pertsonen arteko elkarbizitzarako oinarri gisa.






## 1. HELBURUA

**Eredu kultural** hurbila, **elkarbizitzaren** eta Gipuzkoaren eraldaketaren **zerbitzura**, gizarte batuago eta kohesionatuago batean.

- **Balioen eskola.** Elkarbizitza sendotu eta gizarte lotuago eta kohesionatuagoa bilatuko duten balioak zabaltzeko programa.
- **Kulturaren Kontseilua,** GFAREN politika kulturalak gizartearekin lotzeko, sortzaile eta kudeatzaile kulturalerako lotura sendotuz.
- **Tokiko talentua sustatzea.** GFAk babesten dituen hedapen kulturalerako programetan talentu berriak txertatzea.
- **Kultura Bonoa,** BEZa % 21era igo izanaren penalizazioa desagerrarazi eta kultura herritarrengana hurbilazteko.
- **Tabakalera.** Goi mailako prestakuntzarekin lotutako edukiak abian jarri eta sustatzea, proiektua sozialki errentagarria izan dadin eta kalitatezko edukien sorkuntza bultzatzeko.
- **Kultura Lurraldean.** Zirkuituak Gipuzkoan, zinema eta hitzaldi zikloena nahiz **arte presentzialen** programazioena.
- **Gordailua.** Kultur programazioaren dinamizatzaile gisa berraktibatzea.
- **Koldo Mitxelena.** Liburutegi integral bilakatzea, eta lurraldeko dinamizatzaile kultura gisa indartzea.
- **Lekuona.** Obrak amaitzea eta edukiak zabaltzea, Gipuzkoako Arte Eszenikoen Zentro berria izan dadin.
- **Elkarlana.** Gainerako erakunde eta kultur eragileekin, hainbat proiektu garatzeko, **DSS2016, Chillida Leku eta Albaola,** besteak beste.





## 2. HELBURUA

**Eredu turistiko jasangarria**, gure balio kulturalak eta ondare natural eta artistikoa zainduko dituen, eta aberastasunaren eta enpleguaren sorkuntza sustatuko duena, oreka bilatuz.

- **Turismo mahaia.** Eragile publiko nahiz pribatuak elkartuko dituen foro bat sortzea, sektorea garatzera eta lehiakortasuna hobetzera zuzendutako ekimenak eta proiektuak egiteko.
- **Xedea: Gipuzkoa.** Xedearen planifikazioa eta definizioa hobetzea, turismoaren ekarpena lurraldean orekatuagoa izan dadin.
- **Gipuzkoako turismo bulego berria.** Lurraldea sustatzeko leihatila bat zabaltzea Donostian.
- **Marka politika.** “Donostia” marka aprobetxatu, nazioarteko turismoa erakartzeko eta azoka nagusietan egotea bermatzeko, Basque Tourrekin.
- **Gipuzkoa eta itsasoa.** Kostaldeari lotutako baliabide berriak bilatu eta optimizatzea.
- **Ekitaldiak.** Turismoa erakartzen duten kirol eta kultur ekitaldiak babestea.
- **Lurraldearen oreka.** Gipuzkoan erakunde erkideen inbertsio maila egokia berreskuratzea.





### 3. HELBURUA

**Herritarrek kirola egin dezaten bultzatzea**, gizarte zibilarekiko loturak indartuz, kirol antolatuaren oinarritzko egiturak babestuz eta sektore pribatuarekiko lankidetza areagotuz.

- **Oinarriko klubei laguntza ematea.** Aholkularitza zeregin burokratikoak sinplifikatzeko; horrela, baliabide guztiak kirol jardunera bideratu ahal izango dituzte.
- **2017-2019 Azpiegitura Plana.** Hiru urterako plan berria diseinatzea eta onestea.
- **Kirolgi.** Goi mailako kirola finantzatzen laguntzeko tresna gisa indartzea.
- **Anoetako estadioa.** Estadioaren handitzean laguntzea, eta kendutako atletismo pistentzako soluzio alternatibo bat bilatzea.
- **Kirol ekitaldiak.** Federazioei eta klubei laguntzea, turismoa erakartzeko gaitasuna duten ekitaldi estatalak edo nazioartekoak antolatzeko.



## 4. HELBURUA

Kulturarentzat eta kirolarentzat **finantzazio esparru berri** bat sortzea, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetza hobetuko duten tresna fiskalak garatuz.

- **Mezenasgoa eta babesa.** Sektore pribatua kultur eta kirol jardunean inplikatzeko bultzatuko duen arau berri bat diseinatzea.
- **Kultur BEZa itzultzea.** Kultur BEZaren ondoriozko “gehiegizko zergabilketa” kontsumitzaileei itzultzea, Kultura Bonoaren bidez, edota kultur proiektuak finantzatuz.
- **Ikus-entzunezkoen industria.** Tresna fiskal eta ekonomikoak garatzea, ikus-entzunezko edukiak sortzea bultzatzeko, batez ere euskaraz.
- **Mikromezenasgoa.** Crowdfunding ekimenak sustatzea, gizarte zibilaren proiektu kulturalak sustatzeko.



BALIOEN  
KULTURA

Gipuzkoarentzat

## 5. HELBURUA

Bermatzea **Gipuzkoako gazteriak presentzia izatea** esparru sozial eta kultural guztietan , garapen pertsonalerako eta kolektiborako aukerak indartuz.

- **Plataforma gaztea.** Gazteei ematen zaizkien zerbitzuak optimizatzea.
- **Gazteen enplegua eta aisialdia.** Enplegurako aukerak, autonomia pertsonala eta gazteentzako aisialdi espazioak sustatuk dituzten ekintzak lehenestea.
- **Tokiko talentua sustatzea.** GFAk babesten dituen hedapen kulturalerako programetan talentu berriak txertatzea.
- **Bikaintasun programa.** Gazteek kulturaren, hezkuntzaren eta lanaren arloan duten bikaintasuna bultzatzeko programa.





## 6. HELBURUA

Lankidetza eta laguntza politikak artikulatzea, **pertsonen eskubideak babestuko dituzten erantzun solidario**, ordenatu eta jasangarriak emateko.

- **Errefuxiatuei arreta ematea.** Foru proiektuak eta ekimenak koordinatzea, errefuxiatuen premiei eta eskubideei erantzuna emateko.
- **Balioen defentsa.** Lankidetza programak sustatzea, jatorrizko herrialdeetan eskubideak urratzen dizkieten kolektibo horiekin.
- **0,7 Estrategia.** Lankidetza estrategia bat definitzea, aurrekontuaren % 0,7 proiektuak garatzera bideratzeko asmoz.







Gipuzkoako Foru Aldundia



# BALIOEN KULTURA

## Gipuzkoarentzat

Kultura, Turismoa, Gazteria, Kirola eta Lankidetzat

2015, iraila